

GURE ENPRESAREN FUNTSEZKO SOZINETATEAK

Bazkide perfil desberdinak aurki ditzakegu:

1. GAITASUN ZEHATZ BAT DAUKA(TE)N PROFESIONALAK

Gure negozioa garatzeko orduan, arropa ekoizteko eta banatzeko laguntza behar izango dugu. Alde batetik, arropa josteko gaitasuna duen jendea beharko dugu. Bestaldek, kamioiak gidatu dezakeen jendea beharko dugu, produktuak banatu ahal izateko. Langileak lortzeko, gure inguruko jendeari galdetuko diogu eta kartelak jarriko ditugu kaletik, langileak bilatzen ari garela adierazteko. Sare sozialetatik ere langileen beharra dugula adieraziko dugu.

2. BANKU EDO INBERTSOREA

Banku baten bidez mailegu bat lortuko dugu, ibilgetua (josteko makineria) eta lokala ordaindu ahal izateko. Arropa ekoizteko produktuei dagokienez (telak, kotoia, lana...), bigarren eskuko arropa jasotzen duen ACTECO elkartearekin elkartuko gara, haiek produktuak emango dizkigute, eta guk gure irabazien zati bat emango diegu. Hala ere, gure aldetik ere zerbait erosiko dugu, ez

3. HORNITZAILEA

Hornitzaileari dagokionez, bigarren eskuko arroparekin aritzen den ONG batekin aliatu genitzake, ACTECO elkarteak arropa jasoko du eta gero guri bidaliko digu. Bien artean etekinak banatu ditzakegu, eta horrela lankidetzak sustatuko dugu. Bestelako aliantzak:

<https://slowfashionnext.com/blog/5-empresas-de-reciclaje-de-ropa/>

Askotariko arrazoiengatik ezar ditzake itunak enpresa batek:

- **Bere negozio-eredua optimizatzeko:** Gure negozio-eredua optimizatzeko gure bezeroen nahiak eta proposamenak entzuten saiatuko gara, hobetu ahal izateko. Webgunetik haien iritzia bidali ditzakete, eta horrela zertan hobetu dezakegun ikusteko gai izango gara. Denda fisikoan ere erreklamazioak edo proposamenak egiteko aukera izango dute, beti ere errespetuz.
- **Arriskuak murrizteko:** Gure enpresaren arriskuak murrizteko seguruak ordainduko ditugu hainbat sektoreetan: langileen seguruak, ibilgailuen

seguruak... Bestalde, planifikazio on bat burutuko dugu. Horrela, arriskuak sahiesten saiatuko gara.

- **Baliabideak eskuratzeko** gure elkarteak ACTECO elkarterekin akordio batera iritsiko da, lehen esan bezala haiek guri ehuna emango digute eta gu haiei produktua egina edo dirua emango diegu, haiek ONG bat direlako eta horrela ez dugu adi egon behar zenbat arropa ematen digun gendea, esate baterako baliabideak eskuratzen ditugu.